



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abuztuaren 23a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Manu Ayerdi Olaizola jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (2. or.).
- Bernardo Ciriza Pérez jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (2. or.).
- Carlos Gimeno Gurpegui jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (3. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuaren adjudikazioa eta izendapen proposamena (3. or.).
- Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezzen (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Behin-behineko izendapena (4. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abuztuaren 22an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Manu Ayerdi Olaizola foru parlamentari jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen apirilaren

1eko 7/2019 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (64. zenbakiko NAO, 2019ko apirilaren 2koa), Geroa Bai hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abuztuaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Bernardo Ciriza Pérez jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abuztuaren 22an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bernardo Ciriza Pérez foru parlamentari jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Bernardo Ciriza Pérez jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen apirilaren

1eko 7/2019 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (64. zenbakiko NAO, 2019ko apirilaren 2koa), Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abuztuaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Carlos Gimeno Gurpegui jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abuztuaren 22an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Carlos Gimeno Gurpegui foru parlamentari jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen apirila-

ren 1eko 7/2019 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (64. zenbakiko NAO, 2019ko apirilaren 2koa), Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abuztuaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Lanpostuaren adjudikazioa eta izendapen proposamena

Bukatu da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze lehiaketa. Deialdia Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2019ko apirilaren 17ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta 2019ko maiatzaren 10eko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta data bereko 90. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ikusita lehiaketa gainditu duen izangaiak erdietsitako puntuazioak, pasa den uztailaren 30ean kalifikazio epaimahaiak igorritako zerrendaren arabera ordenatuta, eta deialdiko 8. oinarriaren 3. atalean ezarritakoarekin bat, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DU:

Lehena. Javier Martínez de Estíbariz Ochagavía jaunari adjudikatzea deialdiko lanpostu hutsa,

eta hura Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari gisa, deialdiko lekualdatze lehiaketan puntu gehien erdietsi duen izangaia baita.

Bigarrena. Ezartzea interesdunak, deialdiko 9. oinarriaren 1. atalean xedatutakoarekin bat, 10 egun naturaleko epea izanen duela, izendapen-ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aitzina, karguaren jabetza hartzeko. Jabetza adierazitako epean hartzen ez badu, lehiaketako jardunetik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

Hirugarrena. Agintzea izendapen-ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta interesdunari jakinaraz dakiola.

Iruñean, 2019ko uztailaren 31n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezen (horietako baterako euskaraz jakin behar da).

Behin-behineko izendapena

Bukatu da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoriako teknikari izateko bost lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia, lehendakariaren 2018ko abuztuaren 21eko Ebazpenaren bidez onetsia. 2019ko 145. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 26koan, eta data bereko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández, Rosario Ondarra Erdocia eta M.^a Esperanza García Cascante izendatzeko proposamena argitaratu zen. Hortaz, deialdiko 8. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, izangaiek 7.3 oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu baitituzte, bidezkoa da proposatutako izangaien behin-behineko izendapena egitea, lanpostuaz behin-behinekoz jabetu eta sei hilabeteko praktikaldiari hasiera emateko, deialdiaren 9. oinarrian aurreikusi bezala.

Arestian adierazitakoa kontuan hartuta, lehendakaritza honek, dagozkion ahalmenak eta bere eskumenak erabiliz.

EBAZTEN DU:

Lehena. Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández, Rosa-

rio Ondarra Erdocia eta M.^a Esperanza García Cascante Nafarroako Kontuen Ganberako behin-behineko funtzionario izendatzea, auditoretzako teknikari gisa.

Bigarrena. Interesdunek, funtzionarioaren behin betiko izendapena lortzeko, sei hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dutela ezartzea.

Izangaiek beren lanpostuaren jabetza behin-behinekoz hartzen dutenean hasiko da praktikaldi hori.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea eta Kontuen Ganberako idazkari nagusiari eta interesdunei jakinaraz dakiela agintzea, izendatuek deialdiko lanpostuen jabetza har dezaten, zeina behin-behineko izendapen hau jakinarazten denetik hilabeteko epean hartu beharko baita.

Iruñean, 2019ko abuztuaren 7an

Jarduneko lehendakaria, José Luis Ezquerro Royo